Irungo
euskarazko
hamabostekaria

Irunero

324

Maiatzak 1, 2018

2 Irun Atzo Irun Gaur
3 Iraun Haurreskola
4-5 Opila Eguna
6 Ribera bekak
7 Bidasoako Txapelaundiak
8 Kirolak: Zelaia lasterketa solidarioa
9 Kirolak: Bidasoa Itzulia
10 Kolaborazioa: Gorka Martinez
11 Haurren leihoa / Denborapasak
12 Bertsoak / Gazteen lanak
13 Beti Gazte: Telmo Iridoy ilustratzailea
14 Gazte Informazioa
15 Agenda

Anaka kalea, 8 - IRUN 943 667780

caser
residencial

GURE AITONA-AMONEN
ONGIZATEA HELBURU

Egonaldi iraunkorrak
eta aldi baterakoak

Zubieta, 121 - HONDARRIBIA 943 647169

LOURDES MALDONADO

Kazetaria. Irunen jaio zen, 1973an. Kazetaritza ikasi zuen Nafarroako Unibertsitatean. Ikus-entzunezko kazetaritzan espezializatu zen, ondoren, Bordeleko Unibertsitatean. Txingudi Telebistan hasi zuen ibilbide profesionala. Onda Cero irratian eta France Press-en ere ibili zen garai horretan.

2000.urtean, Antena 3eko Euskadiko albistegia aurkezten hasi zen, eta 2003an, asteburuko albistegi orokorrera pasa zen. Urrezko TP saria jaso zuen 2008an, albistegietako aurkezle onenaren atalean. 2010eko urrian, Urrezko Antena eman zion Espainiako Irrati eta Telebista Elkarteen Federazioak. 2012az geroztik, eguneko edizio bat aurkezten du Antena 3 Noticias-en.

Iturria: Agustin Morate.
Irun y sus gentes.

IRUNERO

Erredakzioa eta maketazioa:
Joseba Arozena
Unai Oiartzun

Euskara zuzentzailea:
Unai Oiartzun

Publizitatea:
Amaia Terrazas
(amaia@irunero.eus)
Ion Otxoa
(ion@irunero.eus)

Diseinuaren eraberritzea:
Andrea Gomez Arocena

Argitaratzailea:
837 comunicación y publicidad S.L
www.837comunicacion.com

ISSN:
1134-0606

Lege gordailua: SS-230-94

Tel: 943 04 2052

www.irunero.eus

Erakunde honek Irunero diruz laguntzen du:

Ayuntamiento Udala
irun
www.irun.org

Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailak
(Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak)
diruz lagundua:

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO
KULTURA ETA HIZKUNTZA POLITIKA SAILA
DEPARTAMENTO DE CULTURA Y POLITICA LINGUISTICA

Erakunde honek Irunero diruz laguntzen du:

Gipuzkoako Foru Aldundia

Hamar urte bete ditu Iraun Haurreskolak

Ospakizun jendetsua egin dute apirilaren 20an

“Haurrak, gero eta gehiago, aiton-amonekin uzten dituzte”

“Garrantzi handia ematen diogu egokitzapenari eta atxikimenduari”

Idoia Carrera, Iraun Haurreskolako koordinatzailea

Ehunka familia bildu dira Iraun Irungo Haurreskolan, hamargarren urteurrenaren ospakizunean. Apirilaren 20an izan da, Konpostela kaleko egoitzan. “Oso hunkigarria izan da”, aitortu du Idoia Carrera haurreskolako koordinatzaileak. Haurreskolatik pasatako haurren familia belaunaldi ezberdinak egon dira, urte ezberdinetako hezitzaileak, praktiketan egondakoak etab: “Xumea izan da, etxekoa, baina oso ederra”.

Irailean martxan jarri zuten urteurrena antolatzeko lan taldea. Gonbidapen gutunak bidali zizkieten familiei, eta harrituta geratu ziren haien erantzun baikorrarekin. “700 lagun baino gehiago genituen izena emanda, eta haurreskolak ez du hainbeste jende hartzeko modurik. Beldurtu ere egin ginen”, adierazi du Idoia Carrerak. Azkenean hiru txanda antolatu zituzten, ospakizuna modu ordenatuan egiteko. Txandak eta ordutegiak aldez aurretik ondo azalduta, primeran atera zen festa.

Txalapartarekin eta agurrarekin jaso zuten familiek harrera. Ondoren, jarduera ezberdinak egon ziren haurreskolan. Argazki erakusketa, alde batetik, azken hamar urteetan haurreskolatik pasatako haur guztien argazkiekin. Terrazan photocall bat egon zen, eta jangelan askaria, guraso batzuen musikarekin girotua. Bestalde, Marte sorkuntza laborategiko arduradunek pintura tailerra eskaini zuten. Ederrena, ordea, haurreskolatik hamar urteetan zehar pasatako jendearekin berriro topatzea izan zela onartu du Idoia Carrerak.

1979 urtean Prudencia Arbide kalean zabaldu zuten haurtzaindegian du jatorria egungo haurreskolak. 2004an, pribatua izatetik Haurreskolen Partzuergoan sartzera pasa zen. 2007an eraikin berria zabaldu zuten Konpostela kalean, eta bertan, hezitzaile lan talde berria egonkortu zen, 2009ko oposaketetan. Gaur egun, 13 langile eta 58 haur daude, 0 eta 2 urte artekoak. “Azken urteetan beheraldia egon da haurren kopuruan, jaiotze tasaren jaitsieragatik eta haurrak, gero eta gehiago, aiton-amonekin uzten dituztelako”, aitortu du Carrerak. Aurten, alabaina, ia betea eduki dute haurreskola.

Garapenaren erritmoa errespetatzea

Haurreskolako hezitzaileen ezaugarri nagusia da familiekin edukitzen duten eguneroko harremana. Idoia Carrerak azaldu du: “Haurrak oso txikiak dira, eta lehen banantzea izaten da haien familiarekiko. Horregatik garrantzi handia ematen diogu egokitzapenari eta atxikimenduari. Asko zaintzen ditugu materiala eta espazioa”. Haurrak behatzea, haien garapena ezagutzea izaten da lan nagusietako bat. Haien erritmoa errespetatzea: “Sarritan, ibili behar duela, edo hitz egin behar duela, aurreratu egiten gara”.

Euskaraz egiten diete haurrei, orokorrean. “Ikusten baldin badugu ez dutela ulertzen, momenturen batean lagun diezaiekegu. Baina gainerakoan, euskaraz egiten diegu. Sekulako malgutasuna dute hizkuntzak ikasteko”, azpimarratu du Carrerak. 2018-2019 ikasturterako matrikulazio epea maiatzaren 2tik 22ra izango da. Maiatzaren 7an, ate irekietako jardunaldiak egingo dituzte, 17:00etan.

Olaizola Immobiliaria agentzia

Salmenta-Alokairuak
Promozio berriak
Aholkularitza

Beraketa kalea, 17 • 20302 IRUN • Tel: 943 626585
info@inmobiliariaolaizola.com
www.inmobiliariaolaizola.com

Opila Egu

Eguraldi txarrak baldintza

Opila Eguna ospatu dute apirilaren 25ean Irunen. Eguraldi txarrak lagundu ez duen arren, ehunka haur eta gaztetxo hurbildu dira Junkal elizako eta auzo ezberdinetako parrokietako opilen bedeinkatze ekitaldietara.

Eguraldi txarra dela eta, bi bedeinkatze egin dituzte aurten Junkalen. Elizaren barruan bat, eta kanpoko plazatxoan, bestea. Opilak senideekin eta lagunekin "elkarbanatzeko" azpimarratu die apaizak neska-mutilei. Aurten, edonola ere, ez dute mendira joateko aukerarik izan.

una Irunen

atu du aurten ospakizuna

ESKATU ZURE AURREKONTUA
943 90 34 50
www.bertako.eus
info@bertako.eus
bertako
igogailuak | ascensores
Zure aurtengo mantenu kuota
%40 raino aurrezteko aukera
daukagu zuentzat
24 orduko asistentzia abisu guztientzat - Iraupen-konpromisorik gabeko kontratuak - Orotariko zerbitzua 100 €-tik aurrera - Euskerazko zerbitzua

Dokumental eta antzerki proiektu bana saritu dute Ribera beketan

Bederatzi hilabeteko epea edukiko dute irabazleek proposamenak aurrera eramateko

***Irun, muga lurraldea* eta *Faisaien uhartea #Historia kontatzeko moduak* proiektuek irabazi dituzte aurtengo Ribera bekak. Heidi Otaduyk eta Mikel Uhartek aurkeztu dute lehena, eta Iraitz Agirrek eta Ivan Gomezek bigarrena. Irungo Udaleko Kultura arloak eman ditu bekak, muga, ibaia eta memoria historikoa kontzeptuen inguruko ikerketa sustatzeko asmoz. Tandem formatu berritzailea proposatzen du Riberak, profil ezberdinak dituzten profesionalak elkartuz: artistikoa horietako bat, eta antropologiarekin, soziologiarekin edo hezkuntzarekin lotua, bestea. "Jakintza horien fusioak oso interesgarri egiten du ikerketa", adierazi du Juncal Eizaguirre Kultura arloko ordezkariak.**

9.000 euroko bi beka eman ditu udalak, eta bikote bakoitzak 9 hilabeteko epea edukiko du proiektua garatzeko. "Memoria bat entregatu beharko da, alde batetik. Baina interbentzio artistiko bat ere prestatu beharko dute, Ribera azokaren baitan aurkezteko moduan", azaldu du Eizaguirrek. Irailean izango da Ribera arte garaikidearen azoka, Bidasoa ibaiaren eta mugaren inguruan. Ondoren, urrian, proiektuak aurrera eramateko prozesuak azalduko dituzte bekadunek, CBA kultur gunean. Martxan dira jada aurtengo irabazleak, zeharo ezberdinak diren proiektuekin.

Gazteen ikuspuntua mugaren inguruan

Heidy Otaduyk eta Mikel Huartek ikus-entzunezko dokumental bat egingo dute, aurten hogeita bost urte betetzen dituzten irundarrei eta hendaiarrei egindako elkarrizketekin. Haiek jaio ziren urtean, 1993an, Europako Merkatu Bakarra indarrean sartu zen. "Haiek ez dute muga fisikoa ezagutu. Horregatik, mugaren inguruan duten ikuspuntua jaso nahi dugu: nola ulertzen duten, oraindik existitzen dela uste duten edo non antzematen den", azaldu du Huartek. Deialdi publiko bat egingo dute, sare sozialen bidez, 1993an jaiotako gazteak parte hartzera gonbidatzeko. "Oso parte hartzailea izan dadin nahi dugu. Gazteek beraiek aukeratu ahal izango dute non atera, elkarrizketak non grabatu etab.". Hiru hizkuntzetan egingo dituzte elkarrizketak, euskaraz, gaztelaniaz eta frantsesez.

> **"Gazteek mugaren inguruan duten ikuspuntua jaso nahi dugu"**
>
> Mikel Huarte

Donostia 2016 Europako Kultur Hiriburuko komunikazio arloan lan egin du bikoteak. Mikel Huarte irundarra kazetaria da formazioz, SER irratian ibilia 19 urtez. Gaur egun AECC minbiziaren kontrako elkarteko komunikazio arduraduna da. Heidi Otaduy donostiarra EITBn hasi zen, albistegien errealizazioan. Ondoren, fikziozko film laburretan eta luzeetan parte izan hartu du, eta beste zenbait entitaterekin lanean aritu da: Kutxa Kultur Festibala, Euskaltzaleen Topagunea edo Donostiako Nazioarteko Zinema Jaialdia.

> **"Gure asmoa da ikerketa gidoi batera eramatea"**
>
> Iraitz Agirre

Faisaien uhartea eta herri antzerkia

Iraitz Agirrek eta Ivan Gomezek Faisaien uhartea jarri dute jomugan, bertan 1659an sinatu zen Pirinioetako Bake Hitzarmena dela eta. Gertakari haren beste irakurketa bat egin nahi dute, genero ikuspegitik, eta mikro historiari edo historia soziologikoari erreparatuz. Herri errepresentazio kultural bat egitea proposatzen dute, Bidasoaren bi aldeetako herritarren eta elkarteen parte hartzearekin.

"Ipar Euskal Herriko herri antzerkiaren formatua egokia iruditu zaigu", argitu du Ivan Gomezek. Europan eredu izan da Ipar Euskal Herria, herri antzerkiaren tradizioari dagokionez. Horren seinale dira gaur egun bizirik dirauten pastoralak, maskaradak, toberak edo kabalkadak.

Txapel handiak bueltan dira

Bidasoa aldeko kultur ondarea mantentzeko elkartea sortu dute

“Guk argitaratzen duguna artxiboetara joango da”

Rafa Merino

“Egia da lotura handiagoa dugula Berarekin edo Lesakarekin, Lezorekin edo Errenteriarekin baino”

Eugenio Retuerto

Chapelaundis del Bidasoa-Bidasoako Txapelaundiak elkartea eratu dute zenbait bidasoarrek, eskualdeko kultura biltzeko eta zabaltzeko helburuarekin. 1920ko eta 30eko hamarkadan izen bereko elkarteak egin zuen lana dute erreferente. Oraingoz, haien inguruko ikerketa egiten ari dira, eta argitaratu nahi lukete. 25 bazkide inguru dira momentu honetan, Hondarribia, Irun, Hendaia, Urruña eta Biriatukoak. Aurrerago, Bidasoa ibaian gora egiten jarraitu nahi lukete.

Azken urteetan konturatzen hasiak ziren hiriko jendea zenduz zihoala, testigantzarik utzi gabe. “Halako hil da, eta bitxikeria pila bat zekien kontrabandoaren inguruan”, pentsatzen zuen, adibidez, Eugenio Retuertok: “Artxiboan, azkenean, idatzita dagoena kontsulta dezakezu. Baina ahozko tradizioa galdu egiten da denborarekin”. Hori dela eta, elkarrizketak egitea, grabatzea eta ondoren argitalpen txikien bidez bildutakoa zabaltzea pentsatu zuten.

Elkarte bat eratzerako orduan, 1920-30 hamarkadetako Chapelaundis del Bidasoa haiek gogoan hartu zituzten. Pio Baroja idazlea Ohorezko Presidente eduki zuen elkarte hartako kideak herriz-herri ibili ziren, herri kultur adierazpide ezberdinak bilduz. Autoan ibiltzen ziren Bidasoaren ertzean gora eta behera. “Horrek adierazten digu maila ekonomiko handiko jendea zela, enpresariak, gehienak”, argitu du Rafa Gonzalezek. Elkarteko kideak nortzuk ziren eta zertan aritzen ziren ikertzen ibili dira, eta laster argitaratuko dute elkartearen ibilbidea.

Bidasoa herria

“Barojak aldarrikatzen zuen País del Bidasoa delakoaren maitaleak ziren txapelaundiak”, azpimarratu du Retuertok. Apaizik, eulirik eta karabinerorik gabeko herrialde baten inguruko utopia alde batera utzita, bat egiten dute Bidasoa ibaiaren inguruko harremanen ikuspegiarekin. Eugenio Retuertok onartu du: “Askotan ez dugu jakiten nola azaldu, baina egia da lotura handiagoa dugula Berarekin edo Lesakarekin, Lezorekin edo Errenteriarekin baino. Eta gertuago ditugu”.

Kontaktuak eduki dituzte Bortzirietan, Malerrekan, Bertizaranan eta Baztanen. Baina momentuz, Behe Bidasoan jarriko dute arreta eta ahalegin gehiena. “Badugu nahikoa lan”, aipatu du Merinok. Irungo eta Hondarribiko Udalekin harremana eduki dute, eta erantzuna baikorra izan da. Elkartearen jarduera haien interesekoa ere izan daitekeela uste du Merinok: “Guk argitaratzen duguna, azkenean, artxiboetara joango da”.

Lehen asanbladan Pio Baroja Ohorezko Presidente izendatu dute, eta haren hiloba-biloba, Pio Caro Baroja, Ohorezko Bazkide. “Duela gutxi ezagutu dugu, Beran, barojataren Itzea etxean. Zoragarria da hori ikustea, eta pena da museo gisa ez funtzionatzea”, azaldu du Retuertok. Aurrekontu txikia du elkarteak, eta momentuz, modu artisau batean plazaratuko du lehen argitalpena. Pixkanaka, pauso txikiak emanez joango dira Txapelaundiak.

EGONALDI MOTAK:

- Egonaldi iraunkorrak
- Aldi baterako egonaldiak familiaren atsedenerako
- Erreabilitazioa, operazio ondokoak eta gaixondoak
- Alzheimerra eta bestelako dementziak dituzten gaixoentzako egonaldiak
- Eguneko zentroak 365 egunetan irekita, GFA rekin hitzartuak, baita Pirineo Atlantikoko Departamenduarekin (APA diru laguntza), garraioarekin Irun, Hondarribia eta Hendaiara

caser residencial

CASER ANAKA
Anaka kalea, 8 - IRUN 943 667780

CASER BETHARRAM
Zubieta Kalea, 161 - HONDARRIBIA 943 647169

Jarraipena izango du Zelaia lasterketa solidarioak

Leber gaixotasun arraroa ikertzeko dirua biltzea du helburu

Bigarren aldiz egingo dute Zelaia lasterketa solidarioa, ekainaren 3an, 11:00etan. Ikusmenari eragiten dion Leber gaixotasun arraroa ezagutaraztea, eta haren ikerketarako dirua biltzea da ekimenaren xedea. Javier Placeres irundarra kaltetu zuen Leber-ek duela zenbait urte. Gaur egun, Asanol elkarteko zuzendaritza batzordeko kidea da, baita Zelaia lasterketa solidarioaren sustatzaile nagusia ere. C.D. Comarca Aldea elkartearen babesa jasotzen du antolakuntzarako.

Iazko lehen edizioaren balorazio baikorra egin dute Zelaia lasterketa solidarioaren antolatzaileek. 124 parte hartzaile eduki zituzten, eta pozik amaitu zuten ibilbidearekin eta giroarekin. Hortaz, formula errepikatuko dute aurten ere. Ekainaren 3an izango da lasterketa, igandearekin, 11:00etan hasita. 5,7km-ko ibilbidea osatu beharko dute, Irungo landa eremuan zehar. Urdanibia plazan egongo dira irteera eta helmuga, eta Meaka eta Olaberria auzoetako baserri bideetan zehar ibiliko dira korrikalariak, bitartean.

"Ibilbide gogorra da, baina ederra", adierazi du Javier Placeresek: "Horixe azpimarratu zuten iazko parte hartzaileek, behintzat". Amaierako giroa ere nabarmentzekoa da, parte hartzaileentzako pintxo-potea egongo baita Urdanibia inguruko tabernetan. Garaikurrak banatuko dituzte irabazleen artean, eta parte hartzaile guztientzako sarien zozketak ere egongo dira. "Eguraldiak laguntzen baldin badu, goiz aparta izango da", aipatu du Placeresek.

Izen-emateak kirolprobak.com web gunean egin daitezke, 12 euroren truke. Dortsalak Deportes Gonzalez dendan jaso ahal izango dira ekainaren 1 eta 2an, baita lasterketaren egunean ere, goizeko 10:30era arte. Iaz Jose Antonio Gomez de Arribak irabazi zuen proba gizonezkoetan (18:49), eta Claudia Behobidek emakumezkoetan (23:13).

"Ibilbide gogorra da, baina ederra"

"Ikusmenaren eta burmuinaren arteko zirkuitulabur baten moduko zerbait da"

Javier Placeres

Ikusmenari eragiten dion gaixotasun arraroa

Lasterketako izen-emateekin bildutako dirua Asanol elkarteak jasoko du, Leber edo Lohm gaixotasun arraroaren ikerketara bideratzeko. FEDER Espainiako Gaixotasun Arraroen Federazioaren parte da elkartea. "74 kaltetu gaude gaur egun estatuan, elkarteko bazkideak kontuan hartuta. Badira gehiago, baina ez dute elkartean parte hartzen", azaldu du Javier Placeresek. 40 urterekin pairatu zuen berak gaixotasuna. Normalean, gizon gazteei eragiten die.

Berari eta bere ingurukoei bizitza aldatu diela baieztatu du Placeresek: "Ikusmenaren eta burmuinaren arteko zirkuitulabur baten moduko zerbait da. Geneak lokartu egingo balitzaizkizu bezala. Batzuk alboetatik bakarrik ikusten dugu, beste batzuek aurretik soilik, eta beste batzuek ikusmen osoa galtzen dute". Kaltetutako gehienek Suitzako laborategi bateko tratamendua jasotzen dute. Haren eragina, ordea, ez dago frogatua. Ikerketarako diru-ekarpen txiki bat lortzea izango da, beraz, Irungo lasterketa solidarioaren helburua.

San Martzialgo hormatik pasako da Bidasoa Itzulia

Azken etapa gogortu dute antolatzaileek, lehenago apurtzeko aukera egon dadin

Maiatzaren 9tik 12ra izango da aurtengo Bidasoa Itzulia. 23 urtez azpiko tropeleko maila handiko txirrindulariak bilduko ditu, berriro, lasterketaren sonak erakarrita. Iaz estu-estua izan zen amaiera, etapetan egindako postuek eman baitzioten garaipena Sergio Samitier Lizarte taldeko aragoiarrari (Euskadi-Murias taldean dago orain, Pro Continental Tour mailan). Aurten, beste pizgarri bat erantsi diote antolatzaileek lasterketari. "Azken urteetan Erlaitzek ez zuen nahi bezain beste apurtzen", aitortu du Antxon Mendiak. Hortaz, San Martzialgo "horma" sartu dutela azaldu du.

2,4km-ko aldapa da, Lastaola baserritik San Martzial mendatera doana, Patrixi jatetxearen ondotik pasata. %8ko batez besteko malda du, baina %19-20ra iristen da lehen 300 metroetan. Bide estua da, eta arazoak eman ditzake eguraldi txarrarekin. "Baina auxiliarrak egongo dira, adi eta edozertan laguntzeko prest", adierazi du Mendiak. Laugarren eta azken etapan pasako dute txirrindulariek San Martzial, Aritxulegi eta Agina gainditu ondoren, eta Erlaitz mendateari aurre egin baino lehen: "Saltsa emango dio lasterketari, gero jaitsiera ere egongo delako, gainera".

Azken berrikuntza lehen etapan bilatu zuten, 2015ean, azken hiru edizioetan errepikatu den IrriSarri Land parkeko amaiera gogorrarekin. "Diferentziak egoten dira, baina ez guk uste bezain beste", argitu du Antxon Mendiak. Nabarmendu, era berean, iaz 20 txirrindulari iritsi zirela Orioko sprint-era, hirugarren etapan, Aiako aldapa gogorra gainditu eta gero: "Maila handia egoten da tropelean, eta zaila izaten da apurtzea". Aurten ere, Irun-Irrisarri Land (104,2km) izango da lehen etapa , Hendaia-Hondarribia (119,4km) bigarrena, Orio-Orio (131,2km) hirugarrena, eta Irun-Irun (77,7km) klasikoa azkena, San Martzialgo igoerako berritasunarekin.

UCIko selekzio bat egongo da

Hemeretzi talde ariko dira aurtengo Bidasoa Itzulian. Horietatik zortzi Euskal Herrikoak eta zazpi Espainiako estatukoak. Frantziatik Blagnac baino ez da egongo, maiatzaren 10ean Frantziako Txapelketa jokatuko baita. "Eragozpen handia izan da hori, aurten", aipatu du Antxon Mendiak: "Frantziako taldeak behartuta daude txapelketan parte hartzera". Gainerakoan, VL Technics Esperza flandriarra eta Colpack Team italiarra egongo dira Bidasoan, azken urteetan bezala. Italiarrek maila handia eman zuten iaz, bereziki.

Aurten, gainera, Suitzako U.C.Mondiale taldea egongo da, UCI Txirrindularitzaren Nazioarteko Batasuneko selekzio moduko bat, Europa osoko txirrindulariak dituena. "Maila handiko taldea da", baieztatu du Mendiak. Tiago Antunes Portugalgo txirrindularitzaren harribitxia nabarmendu daiteke, besteak beste. Italiako Colpack taldean, Andrea Bagioli egongo da, 2.a 23 urtez azpiko Liège-Bastogne-Liège klasikoan. Gainerakoan, Aldro Team-eko Jesus Alfonso Arozarena bigarren postuan dago Espainiako Kopan, eta laugarren tokian da Polartec-Kometa taldeko Juan Pedro López.

"Maila handia egoten da tropelean, eta zaila izaten da apurtzea"

Antxon Mendia, antolatzailea

Artzamendi (926m) Itsasutik (Lapurdi)

GORKA MARTINEZ
unpaisenmimochila.blogspot.com

Denbora: 4 ordu (geldialdirik gabe).

Distantzia: 11, 20 km.

Desnibela: 944m.

Zailtasuna: Ertaina. Desnibela handia da, eta zati teknikoak daude, mendian gutxieneko esperientzia edukitzea eskatzen dutenak.

Lapurdiko tontor garaienera igotzeko bidea Itsasu herrian hasten da, Pas de Roland bidearen ondoko parkinean. Errepidean aurrera jarraituko dugu, eskuin aldera basoan murgiltzen den bidexka bat ikusi arte. Aldapa handi batek Garroa baserriraino eramango gaitu (15min). Hura inguratu eta basoan sartuko gara berriro.

Naparruntz Lepora (348m) iristean, haritz handi bat topatuko dugu (ordu bat). Pagadi malkartsu batean gora egingo dugu ondoren. Pagoak atzean utzita arroketara iritsiko gara, eta haien laguntzaz, tontorreraino helduko gara (926m), atera garenetik bi ordu eta erdi betetzen direnean. Tontorrean dagoen radarretik, belarrez estalitako bizkar batean behera hasiko gara. Ibar txiki batetara iristean, bidea konplikatu egingo da.

Bidexka batek pagadian sartuko gaitu berriro, eta errekastoak eta hesiak zeharkatu beharko ditugu. Parkinera eramango gaituen asfaltatutako errepidera ailegatuko gara azkenean.

El Pilar HH

Denborapasak

Irungo bost auzo

A	O	A	T	R	U	O	Y	W	L	O	P	I	Y	M
N	K	L	A	K	A	N	A	W	V	P	D	D	Y	L
S	O	A	A	W	V	Y	Q	Q	S	A	J	M	D	A
W	O	E	E	B	V	B	Q	I	M	Y	W	G	E	P
U	S	N	W	M	E	H	P	F	F	E	M	F	L	I
F	K	R	T	L	N	R	A	S	P	Z	Y	F	V	T
T	R	E	O	R	R	E	R	W	Z	I	S	U	V	Z
F	B	C	H	F	G	D	J	I	G	K	H	O	B	E
D	C	J	E	K	G	B	D	N	A	P	I	K	S	P
C	B	Y	L	A	E	D	G	B	W	S	P	H	R	W
O	E	Z	I	H	E	J	H	Y	B	B	T	O	O	T
C	G	N	O	X	W	S	B	Z	X	U	M	S	Y	N
Y	P	B	R	E	S	Q	Y	P	C	N	B	A	S	P
T	I	K	S	V	O	H	Q	P	T	G	M	H	C	B
A	N	S	O	Y	E	C	O	W	H	O	D	M	P	I

		2						
			8					
4	5		6				8	7
	7	6		8			3	5
5					4			
8	4		7		3	2	6	
6			9	7			5	
3					5		7	9
		5	3	2				

(Emaitzak: 15. orrialdean)

IRUNABAR
IRUNGO BERTSOAREN BILGUNEA

ALAINERI

Doinua: ETAren su etenetik

Egilea: Uxue Larrukert

1)
Orain hilabete batzuk
joan zinen Diriambara
Bertako elkarte baten
grabaketa lanetara
Argazkitan harrapatuz
gizartearen islada
Gordina edo alaia
kliskada eta kliskada
Batenbat heltzen zitzaigun
zure "egun on" gisara
Hau ere jaso genuen
errazegi beharbada:
"Daniel Ortegaren aurka
Nikaragua altxa da."

2)
"Ezin dut dena kontatu
baina oso da krudela"
"Tankeak herrian eta
kale-borroka itzela"
hilketa kopuru hotza
ta odol usain epela
"Manifa batera noa,
ta ondo nabil bestela"
"Jakin Managuan kaleak
trintxerak ziruditela
AK-47z
tirokatzen gintuztela"
Ta wifiak berriz ihes
bala artetik bezela...

3)
Nicaragua sandinista
Muguruzaren ahotik
Zenbatetan ez al dugu
kantatu biok gogotik
Ta orain dena ezberdin
zu han bertan zaudenetik
Ze errez ikusten dugun
iraultza gure sofatik
Morboa eta izua
biak batera datozkit
Baina pribilegiodun
lasaitasun bat daukat nik
Haiek baino ziurrago
zaudela ongi baitakit
4)
"Azken egunotan asko
okertu da egoera
Agian itzuli beharko
genuke laster etxera"
Azkar bukatuko al da?
zein ote da bukaera?
Behin borrokan sartu eta
botako al naiz atzera?
Hautu ona zuk zeuk duzu
egon motz edo luzera
Zentzudun, iraultzailea
ta sentibera baitzera
Laster emango dizudan
besarkadaren antzera.

Alaineri.

Elatzeta LH3

TELMO IRIDOY, ilustratzailea:

“Bistan daukagun arren, espazioa oso urruti dago, ez dugu eskura”

Espaziora begira jarri da Martindozenea Gaztelekua, Telmo Iridoy (Hondarribia, 1988) artistaren eskutik. *Unibertsoa nire eskuetan* erakusketa prestatu du, udalaren Gazteartean programaren baitan. Xilografia teknika berezia erabiliaz egindako bederatzi koadro dira, espazioaren gaia elkarbanatzen dutenak. Maiatzaren 19ra arte ikus daitezke gaztelekuan, asteartetik ostegunera 17:00etatik 20:00etara, eta 21:00ak arte ostiraletan eta larunbatetan.

Zein lan hautatu duzu erakusketarako?
Linoleo grabatuan egindako bederatzi obra dira, 2016ko azaroaren eta 2017ko apirilaren artean eginak. Xilografia teknikaz gainera, espazioaren gaiak batzen ditu. Berez ez dute harremanik, baina orain, erakusketa prestatzerakoan, narratiba bat eratzen saiatu naiz, jendeak hobeto ulertu edo disfruta dezan.

Ez dituzu obrak propio erakusketarako egin?
Ez, obrak niretzat egin ditut. Erakusketan baino lehen, koadroak nire etxean egon dira. Ez dira enkarguak. Askatasun osoa eduki dut, alde horretatik, eta aprobetxatu egin dut.

Espazioaren gaia asko landu duzu, beraz?
Bai, erakartzen nauen gaia da. Bistan daukagun arren, oso urruti dago, ez dugu eskura. Imajinazio puntu bat ematen digu. Saturno, aldiz, mila aldiz ikusi dut iruditan, baina ez aurrez-aurre. Hortaz, nire interpretazioa egiten dut.

Espazioak hausnarketarako bidea ematen du, gainera. Gustatuko litzaidake erakusketa ikusten duen jendeak ariketa hori egitea, eta pentsatzea zein istorio dagoen koadro bakoitzaren atzean.

Xilografia teknika erabili duzu. Zertan datza?
Zigilu bat egitea bezalakoa da xilografia, jendeak erraz uler dezan. Artisau moduan egin daiteke, baina era profesionalean ere bai, prentsak erabiliz. Nik linoleo plantxak tailatzen ditut, negatiboan, gero tindatu eta paperera pasatzeko.

Nola ezagutu zenuen teknika?
Ni diseinu grafikoan nenbilen, baina gehien interesatzen zitzaidana ilustrazioa zen, alde sortzaile hori. Faltan sentitzen nuen, gainera, eskuz lan egitea. Horregatik erakartzen ninduen xilografiak, batez ere.

Formazioa jaso zenuen?
Debako arte eskolan grabatu kalkografikoa eta xilografia ematen zela jakin nuen, probatzera animatu nintzen, eta pila bat disfrutatu nuen. Gero aukera eduki nuen Galiziako Fundación CIECen (Centro Internacional de Estampa Contemporánea) master bat egiteko, eta askoz gehiago ikasi nuen teknikari buruz.

Azalean tatuatzera ere pasa zara, tatuajeak ere egiten dituzulako.
Azkenean hizkuntza berdina da, ilustrazioa, eta berdin zait matrize batean, paperean edo azalean egin. Tatuajean hiru urte besterik ez daramatzat, eta pixkanaka ikasten ari naiz. Azalak badauzka bere baldintzak ere bai, denborarekin ikasten direnak.

ANTXETA IRRATIA 90.5 / 89.7 FM

Anaka kalea, 11
IRUN
943.61.54.57

TABISA
TANATORIO DEL BIDASOA

San Pedro kalea, 49
HONDARRIBIA
943.64.54.57

BETIDANIK KONFIANTZA ETA ARDURAREKIN

- Aurrez aurre: Irungo CBA liburutegi berrian
- Telefonoz: 943 50 54 44 / 943 50 54 40
- Posta elektronikoz: igazte@irun.org
- Webean: www.irun.org/igazte
- WhatsApp bidez: 607 771 173

Gaztelagun gazteentzako alokairu-programa

Gaztelagun programaren bitartez, gazteen emantzipazioa bultzatu nahi du Eusko Jaurlaritzak, alokairuarentzako laguntzak emanez.

Baldintzak betetzen dituzten 23 eta 35 urte bitarteko gazteek eskatu ahalko dituzte laguntza horiek.

Bizimodu autonomo baten proiektuaren hasieran emantzipaziorako laguntza denez, gazteentzako alokairuaren laguntza hiru urtez gehienez emango da.

Alokabide erakundeak kudeatzen du laguntza.

Noiz sartuko da indarrean?
Gaztelagun 2019ko urtarrilean indarrean hasiko da

Betebeharrak:
- 23 eta 35 urte bitarteko gazteak
- Alokatutako etxebizitzan etengabe bizi behar dute

Informazio gehiago:
www.irun.org/igazte

Doako Komikiaren Eguna

Doako Komikiaren Egunean komikietan espezializatutako liburu-denden rola bultzatu nahi da, baita publiko mota guztiei ezagutzera eman ere; izan ere, askotan ez da jakiten horrelakoak badaudela eta, gainera, ohiko irakurlearentzako ospakizun eguna izateko asmoa dago parte hartzen duten denda askoren aldetik.

Ekimenaren xedea da komikiaren mundua ezagutzera ematea, komikiaren irakurketa hedatzea -eta dendak ere baijakin-mina dutenen artean eta ohiko bezeroa saritzea.

Izan ere, askotan ez dakizu zenbat komiki mota desberdin dauden, eta hortxe daude, zure zain, eta ez dituzu deskubritzen, komikietan espezializatutako liburu-denda batean lehen aldiz sartzen zaren arte.

Komiki denda batean hurbiltze hutsagatik espresuki argitaratutako komiki bat jasoko duzu!

Non? Tinta Comics (José Eguino, 10 behea - Irun)

Noiz? Maiatzak 12

Jarraitu iGazte Instagram-en

IGazte Instagram-en dago

Jarraitu @igazte

Eta nahiago baduzu, Facebook-en eta Twitter-en ere bai

Zure zain gaude !!!

"Festan Blai" ekimenaren dinamizatzaile izateko deialdia

Jaien eremuan gazteen artean euskara sustatzeko ekimena da Festan Blai

Betebeharrak:
- 18 eta 25 urte artean izatea
- Euskaraz ongi hitz egitea
- Irun edo inguruko herriren batekoa izatea
- Gazteekin lan egiteko gogoa eta gaitasuna
- Gauez lan egiteko aukera

Egin beharrekoak:
- Dinamizatzaileek gunearen antolaketa eta dinamizazio lanak egin beharko dituzte, gazteekin zuzeneko harremana sortuz eta parte hartzera animatuz
- Udan zehar hainbat herritako jaietan burutuko da lana

I**nformazio gehiago:** www.irun.org/igazte

Interesa baduzu, bidali zure datuak helbide honetara maiatzaren 15a baino lehen: itsaso@kulturkabia.com

MAIATZAK

2tik 13ra

Zer?
Makila elkartearen margo erakusketa

Ordutegia?
Astelehenetik larunbatera: 18:00-21:00
Igandeak eta jai egunak: 11:30-13:30

Non?
Laboral Kutxa
Kolon pasalekua, 13

Prezioa?
Doan

2tik 15ra

Zer?
2018ko San Pedro eta San Martzial jaietako kartela aukeratzeko erakusketa

Ordutegia?
Asteartetik larunbatera 18:00-21:00 / Igandetan eta jai egunetan 11:30-13.30

Non?
Amaia KZn

Prezioa?
Doan

5

Zer?
Hegaztietan aditua den Tomas Aierberen laguntzaz, begi bistaz zein txorien kantuaren bidez hainbat espezie identifikatzen saiatuko dira parte hartzaileak. Aiako Harriko Parke Naturalean aurki ditzakegun hegazti espezie ezberdinak ikusi eta entzutea izango da helburua.

Non?
Lapuriturri

Izena emateko?
www.irun.org edo telefonoz: 010/943505152

Prezioa?
Doan

Ordutegia?
09:00-12:00era gutxi gorabehera

Denborapasen emaitzak

1	8	2	5	3	7	9	4	6
9	6	7	8	4	1	5	2	3
4	5	3	6	9	2	1	8	7
2	7	6	1	8	9	4	3	5
5	3	1	2	6	4	7	9	8
8	4	9	7	5	3	2	6	1
6	1	4	9	7	8	3	5	2
3	2	8	4	1	5	6	7	9
7	9	5	3	2	6	8	1	4

6

Zer?
Pirritx, Porrotx eta Marimotots "Borobilean" antzerkia.

Non?
Amaia KZ aretoan

Ordutegia?
16:00 eta 18:00etan (2 saio)

Iraupena?
70 minutu

Prezioa?
4,30 euro

7

Zer?
Helduentzako ingelesezko topaketa literarioak. Ambigú: "The Handmaid´s Tale"

Non?
CBA Udal Liburutegia
San Juan Plaza, -1. Solairua

Ordutegia?
18:00-19:30

Prezioa?
Doan

8, 15, 22, 29



Zer?
"Gu ere bertsotan" bertso jaialdien 11. edizioa. Maiatzaren 8, 15, 22 eta 29an, asteartearekin, ospatuko dira Amaia Kultur Zentroan 2017-2018 ikasturteko Bertso Jaialdien lau saioak.

Ordutegia?
15:00etan

Non?
Amaia KZ erakusketa aretoan

Prezioa?
Doan

2019an ezkonduko zara?
ezagutu
gure lanak
kode hau
eskaneatuz
Estudio
Gover
Ezkontza argazkilariak
Letxunborro hiribidea 100,2.
20305 Irun (gipuzkoa)
943 840 113 - 647 930 484
hola@fotogoverbodas.com
www.fotogoverbodas.com